

**KONTU-KONTARI****JEAN PITRAU PASTORALA**

Igandea iritsi zen. Uztailaren 24an zen eta Jean Pitrau pastoralaren lehen emanaldia Atharratze-Sorholüzen. Goizeko zortziak eta laurdenerako Iñaki Martiartu adiskide bizkaitarra etxeko atean neukan. Bakiotik zetorren, jadanik bi oren inguruko bidean eginik, eta Atharratzera iristeko beste hainbesteko denbora egin behar. Kasta gogorra bizkaitarre-na! Hamarretan pastoralaren meza hastekoa zen. Hamarrak eta bostetan elizaren aitzinean ginen. Ordurako dena jendez mukuru zen. Iñakik, ez dakit nola, bidea egin zuen elizaren sarrera oztopatzen zuen jendetzaren artean eta gibealeko aldera sartzea lortu genuen. Beharrik! Hortik mezaren nondik norakoak jarraitu ahal izan genituen. Irteterakoan *karrika üngürüa* eta *zintzarrada* ederraz gozatzeko aukera ezin hobe ukan genuen.



*Eliza jendez mukuru zen*



*Apeza eta aingüriak*

Bukatu orduko bazkari lasterra egin eta pastorala jokatu behar zuten pilota-plazara abiatu ginen. Hirurak eta erdietan hastekoa zen, beraz, bazen aski denbora leku ona hartzeko. Ordu biak eta hamar ziren eta jadanik aski betea zen. Aurreko aldea jendez gainezka. Hori pena! Ezkerraldeko harmailetan eseri ginen. Ordu bi eta erdietarako den-dena betea zen. Euskal prentsan irakurri dudanez, lau mila eta bostehun pastoralzale izan ginen pilota-plazako bazterretan. Arrakasta itzela!



*Zintzarrada koloretsua*



*Artzainak eta astoa*

## 1. Nor izan zen Jean Pitrau?

Jean Pitrau 1929ko uztailaren 17an Arhane auzotegiko Erbi-nea izeneko etxaltean jaio zen. Amañi Montorikoa zuenez, Jean xiberotarrez eta biarnesez mintzaten zen. Erbinean bizi izan zen Clément eta Lüxi aita-amekin, Albert osabarekin eta Maidalena eta Pierrot anai-arrebekin. Lehen ikasketak Arhane-ko eskola ttipian egin zituen. Hamalau urte zituelarik, Arhane-ko eskola utzirik, etxaltean plantatu zen aita-amekin batera laborantzan aritzeko. Zerbitzu militarra egin ondoren, etxaltera itzuli zen. Ordurako bazekien laborarien geroak, neurri handi batean, formakuntza egoki batetik etorri behar zuela. Hori dela eta, Tolosa Purpaneko Aita Fort-en kurtsoak korresponden-ziatziaz burutu zituen.



*Oboltza ederra*

Laborantzaren geroaz biziki kezkatuta zegoenez gero, Sallabert eta Tomas Üthürri apezek laborarien bizimodua hobetzeko antolatzen zituzten bilkuretara joaten hasi zen. Üthürri bizilaguna eta adiskidea zuen ttipi-ttipitik. Nekazal sindikal-gintzan buru-belarri sartu zen eta bertatik borthüetako laborari ttipien aldeko sekulako lan handia egin zuen. Zuberoako eta Biarnoko laborari ttipien artean inkesta bat burutu zuen eta laborantza ttipia azkenekoetan zegoela agerian utzi. Laborari ttipien beharrak hobeto bideratzeko ASAM (Borthüetako laborantzaren aldeko elkartea) sortu zuen.

1966ko azaroaren 5ean Jean Pitrau Azkarateko Anita Galant-ekin ezkondu zen. 1967an lurrikara handia izan zen Pirinio aldean eta Biarnoko Ereta herrian kalte handiak eragin zituen. Pitrauk laguntza-deia zabaldu zuen eta zazpiehun bat bolondres agertu ziren berreraikitze lanetan aritzeko. 1968ko maiatzak arrasto nabarmenak utzi zituen garaiko borrokalarrien artean eta horren ondorioz, 1970. urtearen irian, orduko eredu sozialaren aurka zegoen gazte multzo bat Zuberoara etorri zen eta Pitrauren inguruan ziren antolatu. Zuberotarrek ez zuten begi onez ikusi gazte hauen etorrera, eta hippyak eta marjinalak zirela erraten zuten.

1973an, haur gutti zirela eta, prefetak Arhaneko eskola ixteko agindua eman zuen. Pitrauk herritarrak mugitu zituen eta eskolak hainbat urtetan zabalik jarraitzea lortu zuten.

1975eko uztailaren 17an, Jean Pitrau hil zen, berrogeita bost urte zituela. Haren hiletara jendetza handia hurbildu zen Atharratzeko elizara, azken agurra ematera. Horixe izan zen Pitrauk bizitzan eraman zuen borrokari eman zitzaion onarpen handia.

Bizi izan zen bitartean, ezkertiarra zela leporatu zioten anitzek, talde marjinalekin zebilela, erdi hippya zela, profeta faltsua zela,... baina herritar xumeek izugarri maitatzen zuten.

Horregatik, Jau Pitrauren oroitzapenek bizi-bizirik iraun dute zuberotarren artean. Ongi merezi du Jean Pitrau laborari borrokalariak Pier-Pol Berzaitzek idatzi eta Atharratze-Sorholüze-ko herritarrek jokatu pastoral eder hau.



*Pitrau pastoralaren afixa*



*Jean Pitrau eta Anita Galant-en ezteia*

## 2. Pastoralaren nondik norakoak

Arratsaldeko hiruak eta erdietan, puntu-puntuan, eta pastoral martxaren ohiko soinuaz, arizaleak jendez beteriko pilota-plazan sartzten hasi ziren. Arizaleekin batera, Otsagabiako dantzariak zetozen, Atharratzek eta Otsagabiak aspalditik baitute birazkatze hitzarmena egina.

Lehen prediküaren eta satanen lehen agerpenaren ondoren lehen jelkaldiaren txanda izan zen, eta bertan Jean Pitrauk, Aranheko eskola utzirik, Erbianea sortetxeko segida bere gain hartu zuen garaiaz aritu ziren.

Horrela 20. eta 21. bertsetetan aitak honela erraten dio: *Jobañe jin dük aldia / hartzeko gure segida / nola dügün obidüra / instalat dadin gebiena. // Xoko hontan bizitzea / ez bada beti hain aisa / zer düe han pettarrean / gük heben ez gümükeana?*



*Otsagabiako dantzariak oboltzan*



*Bühame multzo bandia oboltzan*

Bigarren jelkaldian, Tomas Üthürri apez adiskidearen bilkuretara joaten hasi zen. Pitrauren borrokaldiaren hastapen garaia izan zen. Hirugarren jelkaldian sindikalgintzan sartu zen. Laugarren jelkaldia bitxi bezain adierazgarria izan zen. Paristarak bakantzetan Borthüetako herrietara hurbiltzen hasi zireneko kontuak. Jelkaldi honen bukaera aldean, eta ikus-entzu-leak zirikatatu nahian, Luis Marianoren ahots ederra entzun zen

*Il est un coin de France où le bonheur fleurit* abesti ezaguna abestuz. Jendeak, barre eta txistuen artean, segitu zuen: *Aire tun txikitun, airen tun aire!*

Hurrengo jelkaldietan Pitrauren borroka luzeaz aritu ziren. Zortzigarren jelkaldian atharraztarrak 1963an, joko garbiko finaleraino txapeldun geratu zireneko kontuak. Partida hartan izan zen Etxahun-Iruri. Berzaitzek jelkaldi honetan bi-biak, Pitrau eta Etxahun, elkarrikketa batean lotzen ditu. Jean Pitrauk 62. eta 63. bertsetetan honela dio: *Pierra Etxahun adiskidea / bertsolari famatua / argitzen düzü herria / alageratzen jentea // Gü aldiz beti borrokan / salbatü nahiz laborantxa / gü iparrek baize hotza / zü goizeko ortzadarra.* 64. eta 65. bertsete-



tan Berzaitzek honako hau jartzen du koblakariaren ahotsean:  
*Bertsolarien bihotza / ez dük beti alegera / herria trixte sendi-  
 tüz / goibel dik sentimendüa // Miresten diat züen lana / baita  
 kuraje handia / züek düzüe salbatzen / gure Xübero osoa.*



*Arizaleak oboltzan kantari*

Hamargarren jelkaldian Atharratze eta Otsagabiaren arteko birazkatzeaz mintzatu ziren eta bukaera aldera, dantzari nafarrek euren herriko ohiko dantzak egin zituzten, euren makila kolpeez lurra iratzarritz eta pastoralzaleen bihotzak berotuz. Hamaikagarren jelkaldian Jean Pitrau eta Anita Galanten ezteia antzestu zuten. Jelkaldi honen amaieran Pier-Pol Berzaitzen *Ene lürra* izeneko kantore ederra abestu zuten. Honatx:

*Ene lürra zelü argi bat non ere distira zilarrezko arraietan.  
 Jeikitzen zaikün goizanko ekia egün soil edo alaitsuen  
 herrokan.*

*Ene lürra olerki bat, iraztorra olalte eta soro berdeek  
 alaiki idatzirik.*

*Larrazkeneko ürreek apaintürrik übaitzak lüzaz xuxur-  
 latürrik.*

*Ene lürra oibü bat arane basen goitik ezagün den oiar-  
 zün mingarria.*

*Gure ardi saldoen txintxen eta marraken artetik nabas-mahas berogatia.*

*Ene lürra hasperen bat amodio eskasaren mina maitar-zünaren etsidüra.*

*Denboraren sarietan aiten hitzordü galdüen irrintzin eta zinka.*

*Ene lürra kanta bat bi botzetan emanik pastoralean edo ostatü xokoan.*

*Blues bat, soul müsika zakürraren xanpan belatxaren kurrinkan.*

*Ene lürra dantza bat zelüari, dei bat lürrari, desafio bat.*

*Suita, moneinak ta gabota, godalet dantza, barrikada bat.*

*Ene lürra amodio bat alegrantzian ereina bena kemen estaliz epeltüa.*

*Hor gure seme-alabak, Xüberoa zer dük gogoan: hiltzea ala bizia?*

Hamabigarren jelkaldian Eretan kalte handiak sortarazi zuen 1967ko lurrikara gogoratu zuten, baita Pitrauk antolatu zuen elkartasunezko mugimendu handia ere. Bukaerako *Es-küz eskü* izeneko kantuan, Berzaitzek honela kontatzen digu errepikan: *Andere natürak / ikarazi deikü lürra / Ederra zen eta agorrila / bandi bedi orai gizona / agertüz alkartarzüna.*

Hamahirugarrenean hippyen mugimenduaz eta Zuberora, Pitrau laguntzera, etorritako gazteez aritu ziren. Hamalagarrenean, laborari ttipien penak eta tristurak, eta baita turisten axolagabeko jokaera ere, jokatu zituzten. Azken bi bertsetetan, hau da, 96. eta 97.enean, Marc eta Tinette izeneko mihi gaiztoek honela diote: *Gal baledi Xüberoa / zer in-porta dü funtsean / nornabi da egün bizi / etxe hauetako pattarretan // Joan bite otoi gazteak / bizi hobea da hirian / jinen dira bakantzetan / eta gero erretretan.*

Ikus-entzuleek txistualdi luze batez erantzun zieten. Hamabosgarrean 1968ko maiatza ekarri zuten denon gogora.

Hamazazpigarren jelkaldian 1971tik aitzina Larzak-eko landetan izan ziren protestak agertu zituzten. Frantziako gobernamenduak militar-eremu handi bat egin nahi izan zuen Larzakeko laborari landetan eta horretarako laborari ttipien lurak ebatsi behar zituzten. Hamar urteko borrokaldi luzea piztu zen eta azkenean, 1981ean, Mitterand lehendakari sozialistak proiektua bertan behera utzi zuen. Jean Pitrau han ibili zen bere elkartasuna adieraziz. Bukaeran, Roland Pécout-en kantu biarnesa abestu zuten. Errepikan honela dio: *Tèrra del Larzac dubèrta als quatre vents / de la revolta coma las alas d'un molin.*

Hemezortzigarrean artzainak igor ziren oholtzara, artaldea, zakurra, astoa eta guzti, pastoraletan ohikoa den bezala. Kantu eder batez agurtu ziren. Hemeretzigarren jelkaldian Arhaneko eskolaren defentsan emandako urteak gogoratu zituzten.



*Artzainak kantari, artaldea baien artean dutela. Astoa ondoan*

Hogeita batgarrenean, Jean Pitrauren heriotza antzestu zuten. Honela mintzo zaigu Pitrau 129, 130, 131 eta 132. bertsetetan: *O zelüko Jink Jauna / hau akidüra handia / jada ürrentzen ari zaita / lür bontako pasajea // Entzün nizün gazte denboran / dei bat zela sinetsirik / geroztikan ebili nüzü / izar eder horren ondotik // Jauna gozik deitzen nüzü / banizün eta egiteko / bena nabi dükezüna zük / ontsa dükezü enetako // Galtatzen dütt parkamentüa / ene hüts güzientako / adio ene maitagarriak / züeki nükezü betiko.* 133 eta 134. bertsetetan Jean-Louis Ager apezak honela erantzuten dio: *Jean ene adiskidea / erori hiz batsantürrik / hainbeste ürrats eramanik / eta zerbitxü eginik // Jinkoak bere mahainean / har hitzala bere ondoan / lekü bat badik biretzat / saintüen komünionean.* Eta amaitzeko aingeruek honela abestu zuten 135 eta 136. bertsetetan: *Ez otoi aipa biltzerik / edo betiko galtzerik / Jean date beti bizirik / Kristok ützi arnasetik // Hainbeste lekükortazün / bardin sinesgaitz gizona / Jinkoaren bibotz bona / gü beno handiagoa.*



*Jean Pitrauren biltzea*

Oraindik bi jekaldi gehiago izan ziren eta hauen segidan ohiko azken predikua, non Jean Pitrauren bizitza eta bo-  
 rrokaren laburpena egin zuten. Gero ohiko azken kantorea-  
 ren tenorea izan zen. Dominika Haztoik egina zen eta *Xütik*  
 izena zuen. Hona hemen lehen bi koblak: *Xütik egon hin-  
 tzan, mündü zabalari so / Maidalenako maxeler, barna sar-  
 türrik erroak. / Xiberotik, Larzak, Aspeko ibarretarat / non ere  
 bebarünanta, borra bire lühertza / eüskaldün, fededün, zer-  
 bitxüzalea / izan üken beno, ez dira hitz abülak. // Xütik da  
 artzaina, bortü gorari so / Arbane, zer bake güne, arimen  
 bazkazale / ülhünpean baztertüz, pe horietan lanbape /  
 Ama-lürraren gose, xüxenagorik zer daite? / Zainetan bizia,  
 Erretzü, Arbanen, / makila esküan, azkorria da pizten.*

Azken kantua amaitu bezain laster, jendea mugitzen eta  
 altxatzen hasi zen. Antzeren tenorea zen. Antzerak enkante  
 modukoak dira, non Zuberoako herriek ozenki dirua es-  
 kaintzen dute laguntza gisa. Irabazten duen herriak bere he-  
 rriak oholtzara igotzeko eta denen aitzinean *muneinak* eta  
*aintzina pika* izeneko dantzak egiteko eskubidea beregana-  
 tzen du.

Berrehun eurotan abiatu ziren eta Zalgize-*Iruri* herriak ira-  
 bazi zuen mila eta hirurehun euro emanik. Berehala bertan  
 ziren zalgiztarrak eta iruritarrak (Zalgize eta *Iruri* udalerrri  
 bakarrean elkaturik diren bi herri baitira) oholtzara igo zi-  
 ren ohiko dantza horiek trebezia handiaz egiteko.



*Zalgize eta Iruriko herritarrek antzerak dantzaten*

### 3. Pastoralari buruzko iritzia

Atharratze beti izan da herri trebea maskarada eta pastoral kontuetan, usai edo tradizio handia du eta horrelakoetan atharratarrek bihotza eta arima jartzen dituzte. Jean Pitrau pastoralara bide horretatik etorri zaigu, eta ezin uka biziki pastoral ederra izan dela. Bere baitan lehen mailako adiskideak bildu ditu eta horrek arrakastara eraman du zuzen-zuzenean. Pastoral-egilea Pier-Pol Berzaitz izan da, izen horrek dakarren zama guztiarekin. Historia ederra, ongi josia, zuberotar moldeko kantu ederrak, ikusgarri itxura erakargarria.... Errejenta Jean-Pierra Rekalt aditua. Honek zuzentasun osoz gidatu zuen pastoralaren jokia hasieratik amaiera arte.

Arropen arduraduna Erramun Gartzia-Zabalegi, jadanik Zuberora osoan arras famatua dena, hamaika pastoraletan trebe-

tua. Jantzera koloretsuak, iradokorrak, eta baita zirikatzaileak egin ditu; bñhameen janzkera, adibidez, berezi-berezia eta zinez ederra izan da. Joimo Arhanzet izan da dantzarien trebatzailea, eta dantza arloa goi-goian ezarri duena. Arizaleak ere ongixko aritu ziren.

Nire ustez, atharraztarrek hurrengo pastoralerako beste leku egokiago bat xerkatu beharko lukete, ohiko pilota-plaza zinez ttipia gelditu baita. Lau mila eta bostehun pertsona ginen han, baina bat ere mugitzeko tokirik gabe. Alde horretatik pixka bat itogarria egin zitzaigun bertara hurbildu ginen pastoralezaleoi. Leku ederra da, baina jadanik aski ttipia.



*Karrika ùngürüa. Ezkerrean Jean Pierra Rekalt errejenta eta eskuinean Pier-Pol Berzaitz pastoral-egilea*

Pastorala ezinbesteko ekitaldia bihurtu da Zuberoan. Herriarrak biltzeko tresna ezin hobea da eta euskara eta euskal kultura aitzinatzeko eta transmititzeko baliabide sendo bezain maitatua. Denok dakigu zein egoera kaxkarretan dagoen gu-

re mintzaira Iparralde osoan. Frantses boterea, behin eta berriz, ahalegindu da gure hizkuntza eta kultura mapatik ezabatzen, eta neurri handi batean lortu duela erran daiteke, azken hamarkadetan euskararen gibelatzea izugarria izan baita. Zuberoan, ikastolak, AEK eta Xiberoko Boza irratiarekin batera, maskaradak eta pastoralak izan dira euskararenugarra pizturik iraunarazi dutenak. Begi bistan da, ez dela nahikoa. Maskaradek eta pastorek Zuberoari herri duintasuna eman diote. Euskara herdoilduta zuten askok mintzaira zorroztu dute, horien eraginez, eta ez zekiten beste askok berreskuratu egin dute. Gainerakoek, erdaldun edota euskaldun kamutsak izaten segitzen dutenek, euskaraz horrelako ekimenak egiten direla ikusi dute eta gure mintzairarako hurbilketa bat ezagutu.

Euskararen aldeko politika indartsu eta ausarta beharko genuke Zuberoan eta Iparralde osoan, gure hizkuntza dagokion ohorezko tokian berriz jartzeko. Baina, tamalez, politika hori ez dago euskaldunen eskuan, frantsesen eskuan baino. Orain arte frantses administratibotik eman dituzten urrats epelak, euskaldunen etengabeko eskaerak apaltzeko neurriak izan dira, besterik ez. Ez dute inolako nahikunderik deus egiteko. Zer egin? Noiz arte jarrai dezakegu horrela?

*Joseba Aurkenerena*  
Urruñan, 2016ko agorrilaren 1ean